



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Dagokion hizkuntzan

Horrela. Segurtasun juridiko horrekin zehaztu du Hezkuntza Sailak maisu-maistra oposizigileek zein hizkuntzatan egin beharko dituzten euren azterketak: “Dagokion hizkuntzan”. Ze demontre esan gura du horrek? Oposizigileek, orain arte bezala, gaztelaniaz egin ahal izango dituztela azterketak? Eta programazio didaktikoa? Zehaztu dute programazio hori *pdf*, *Libre office 6* edo *Microsoft office 2016* formatuetan ematea egongo dela; zein hizkuntzatan ez diotenez, libre bide da euskaraz nahiz gaztelaniaz idaztea.

Badirudi Hezkuntza Sailak noraezean jarraitzen duela. Edo koldar. Edo biak.

Iazko ekainean *Hezkuntzaren aldeko akordioa* aurkeztu zuen. Horretan zioen irakasle asko ez dagoela eroso bere euskara-mailarekin, eta laguntza emango ziela, batez ere ahozkoan, C1+ maila lor zezaten. Hizkuntzez ari zela, hauxe ere bazioen: “Hezkuntza sistemara sartuko diren irakasle berrien profila zehaztuko da (...)”.

Hain justu, aurtengo oposizio-dealdian egin ez duena: irakasle berrien profila zehaztu. Jarraitzen du nahikoa izaten noizbait ateratako C1 maila aurkeztea: pentsa, duela 35 urte balio zuen D tituluak ere balioko luke! Ez hori bakarrik: 1993an ordezeko irakasle zen norbaitek

lortuko balu plaza 2019an, hiru urteko epea luke euskaraz ikasteko. Beraz bai, oposizioa gaztelaniaz egin ahal izango da. Baita ahozko proba ere.

2017ko deialdian bezala: berdin-berdina.

2018ko *Hezkuntzaren aldeko oinarriak* inoiz idatzi izan ez balira legez.

Eta horrela, gauzak berdin-berdin eginda, Hezkuntza Sailak oinarri berriak jarri gura ei ditu: hezkuntza-sistema aldatu, ikasle eleanitzak lortu eta, derrigorrezko eskola-aldia amaitzean, euskara-maila B1etik B2ra igo. Eta bla.

Hori gutzia, irakasle berriek plaza lortzean, une honetan, aurren, benetan duten euskara-maila zein den egiaztatu barik: duela bi, bost, hamaika urte zutena baino ez da kontuan hartuko. Egiaztatu barik gaurko egunean euskaraz ondo egiten dutela. Berbetan ganoraz dakitela.

Bien bitartean, Hezkuntza Sailak jarraituko du hiru eleetan: euskaraz B2 eta ingelesez B1 lortuko dute gure ikasleek DBH amaitzean: gutzia berdinean eginda, askoz emaitza hobea. Zergatik? Gureak Valentziako ikasleak baino azkarragoak direlako. Han, ikasle koitaduek Valentzieraz B1 eta ingelesez A1 lortuko ei dute, gutxienez, DBH amaitzean. Hala dio behintzat 4/2018 legeak, Valentziako hezkuntza-eredu eleanitzekoak. ●

Evaristopediak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Bere itzulera iragarri du La Polla Records taldeak. Interneten sartuta jakin dut 84an atera zuela estudioko lehen albuma (*Salve*), eta 85ean bigarrena (*Revolución*). Gogoan dut, artean nerabegarora iritsi gabea banintzen ere, lehen bi disko haietako kantak Gasteizko Plaza Berrian zegoen fonoteka publikoan entzun nituela. Esan gabe doa letra asko ez genituela ulertzen, eta Evaristok –agudo ikasi genuen abeslariaren izena– kantatzeko zuen modu xelebrea oso dibertigarria egiten zitzaigula.

Gaurko egunera etorrita, inor nazionalista ez den honetan, bitxia suertatu

zait ikustea nola aldatzen zaion identitatea Evaristori. Izan ere, honako etiketak daude Wikipedietan artikulu bakoitzaren hasieran: “*Cantante galego-vasco*” (galizieraz), “euskal herritar abeslaria” (euskaraz), “*cantante español*” (gaztelaniaz). Esan dezadan, bidenabar, katalanezko eta esperantozko bertsioak gaztelaniazkoaren kide direla.

Entziklopedia askea da Wikipedia; ideologia libertarioaren ondoko punk mugimendua. Hala ere, ez dirudi inor ere zama kulturaletatik libre dagoenik. Ezta Evaristoren gaineko edukiak editatzen dituzten XXI. mendeko akatak ere. ●